



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2019KO IRAILAREN 4AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko irailaren 4an arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia, Olatz, Dorai, Julen Beunza, M^a Mar Ansorena, Ricardo Arangoa eta Xabier Azpiroz.

Bertaratu da baita ere Ales Martinez (Ihabengo kontzejuko alkatea)

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.

2019ko uztailaren 25eko ohiko eta 29ko ez ohiko batzarreko aktak, deialdiarekin batera bidali dira eta bildutakoek aho batez onartzen dituzte.

2.- Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

- 2019/86 alkate ebazpena uztailaren 25ekoa onartuz Izaskun Galardi Porturik egindako zaharberritzeko diru laguntza eskaera, Aizarotzko UOR1 unitatean etxebizitza egikaritzeko, diru laguntza 3.300 eurokoa izanik.
- 2019/87 alkate ebazpena uztailaren 25ekoa onartuz Miguel Lopezek egindako zaharberritzeko diru laguntza eskaera, Berueteko 11. poligonoko 37. lursaileko etxebizitzan fatxada margotzeko, diru laguntza 14.97 eurokoa izanik.
- 2019/88 alkate ebazpena uztailaren 25ekoa onartuz EIOZren behin betiko likidazioa Miguel Goñi Oliasek Gartzarongo Bentako eraberritzearen inguruan aurkeztutako obra bukaeraren arabera, 490,,9 euro sustatzailaren alde.

- 2019/89 alkate ebazpena uztailaren 25ekoa onartuz GFM empresak aurkeztutako aurrekontua datu babestuen sistemaren mantenimendua eta eguneratzea egiteko, 2.050 eurokoa BEZ kanpo.
- 2019/90 alkate ebazpena onartuz Ernaizu Kooperatibak egindako eskaeraren ildora Makro empresan dagoen hozkailua 999 euro BEZ kanpoko gastuarekin.
- 2019/91 alkate ebazpena uztailaren 25ekoa onartuz behin behineko gainbaliaren zergati lotuta ez egotea Aizarotzko Herriko Plaza 2, 2ezker helbidean dagoen etxearen salerosketa, 2017/19 goru legearen 172. artikulua araberak ikusita ez dela ondasunaren gainbaliorik.
- 2019/92 alkate ebazpena uztailaren 29koa Martxoako 20ko 2019/31 foru dekretuaren 16. artikuluari jarraiki iharduera etxe instalazio dela Itsasoko 4. poligonoko 416. lursailean 25 ardi izatea eta M^a Jesús Etxauri Etxarri baimena ematea.
- 2019/93 alkate ebazpena uztailaren 29koa onartuz Balduquena empresak aurkeztutako aurrekontua artxiboa 2016/50 Foru Agindura egokitzeko, aurkeztutako aurrekontua 1.421,75 eurokoa izanik BEZ kanpo 73 orduko lanengatik.
- 2019/94 alkate ebazpena uztailaren 29koa alkate gisako eskumenak Francisco Javier Azpiroz Latasa alkateordearen esku uztea 2019ko uztailaren 30etik 2019ko abuztuaren 25era biak barne.
- 2019/95 alkate ebazpena uztailaren 30ekoa behin betikoz esleitzea Olako parajeetan dagoen Aizarotzko mendu komunaleko 2013/458 zenbakidun PEFC zertifikazioa duen mendiko lotea, Maderas Larretari 45.500 eurotan BEZ kanpo.

Bildutakoak ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

3.- Ihabengo 3. poligonoko 34. lursailerako xehetasun azterlana. Hasierako onespenera.

Alkateak adierazten du maiatzaren 30ean aurkeztu zela xehetasun azterlanaren proposamena, helburura unitatea sortzea eta etxebizitza egiteko lerrokadurak aldatzea. Dokumentazio gehigarria aurkeztea eskatu zion udal arkitektoak bere lehenengo txostenean, hau aurkeztu ondoren udal arkitektoaren txostena baiezkoa da eta hasiera batez onartzea xehetasun azterlana proposatzen du. Behin betiko onespenerako sustatzaileak dokumentu bateratu bat aurkeztu beharko du udal arkitektoaren 14/561. txostenean agertzen direnak zuzentzeko.

Gainera Errepide Atalera bidaliko da proiektua baimendu dezaten errepidera 18 metroko distantzia baino distantzia txikiagoan egikaritzeko proposamena aurkezten duela sustatzaileak, 13 metrotara eta Errepideen Legeak 18 metroko distantzietara egokitu behar direla eraikinak adierazten du. .

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Hasiera batez onartzea lhabengo 3. poligonoko 34. lursailerako xehetasun azterlana, lursailean dagoen unitatearen lerrokadurak aldatzeko.**
- **Jakinarazi akordio hau sustatzaileari adieraziz behin betiko onespenerako dokumentu bateratu bat 19/561. udal arkitektoaren txostenenean zehazten den moduan.**
- Nafarroako Aldizkari Ofizilean argitaratua izan dadin agindu 2002/35 Foru Legearen 76. artikulua araberan 20 eguneko epean.**
- **Errepide Atalera proiektua bideratu baiezko txostena eskatuz.**

Gai ordenetik kanpo beste bi gai aztertzeko badaude eta , guztiak gai ordenen sartzeari onartzen dute bildutakoek.

-2019ko aurrekontua. Behin betiko onspena.

Alkateak azaltzen du aurrekontuaren hasierako aurreikuspena 1179636,39 euroko zela gastuetan, baina aurrekontuan ez zeudela bi partida isladatuak, Farmaziko pisuaren konponketak eta Adinduen gelaren konponketak, bien aurreikuspena 200 eurokoa izatea adostu zen ogasun batzordean, hortaz osotara 400 euro. Aurreikuspen hauek Udaleko inbertsio ezberdinen partidak hartuko dira, hasierako aurreikuspena 13000 eurokoa izan zen eta behin betiko aurreikuspena 12600 eurokoa izanen da. Hortaz aurrekontuaren aurreikuspena hasieratik behin betikora ez da aldatzen 1.179.636,39 eurokoa jarraitzen du izaten. Xabier Azpirozek aipatzen du aurrekontuan ez dagoela sartuta Balduquena empresari onartu zaion aurrekontua artxioboaren egokitzapena egiteko eta aurrekontua aztertu ondoren, Udala Informatika gastuen partidan sartzeari adosten da. Alegazioak aurkezteko epea abuztuaren 28an bukatu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean abuztuaren 7an argitaratu ondoren hasierako onspeneko akordioa, hortaz behin betiko onspena eman ahal zaio aurrekontuari aipatutako aldatetekin, ogasun batzordean onartu direnak.

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Behin betikoz onartzea 2019ko aurrekontua, gastuen aurreikuspena 1.179.636,39 eurokoa izanik eta sarrerena 1.180.108,13 eurokoa.**
- **Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu 1990/6 Foru Legearen 272. artikulua araberan, modu zehaztuan.**

Igoako UA 3 unitateko urbanizazio proiektuaren behin betiko onspena

Alkateak aditzera ematen du gaia hau hirigintza batzordean hainbatetan aztertu ondoren azkeneko pausoa onartua izan dadin, Errepide Atalak baiezko txostena egitea dela. Aipatutako baiezko txostena irailaren 2an jaso zuen udalak. Irakurtzen da udal

arkitektoaren baiezkotxostena, bertan adierazten da errepide ataleko baimena behar dela proiektua behin betikoz onartzeko eta bertan eskatzen zitzaizen abala ere ordaindu dute (hala justifikatzen da sustatzailaren aldetik).

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Behin betikoz onartzea Igoako UA3 unitateko urbanizazio proiektua eta 2002/35 foru legearen 134. artikulua arabera akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.**
- **Erabaki hau sustatzaileei jakinarazi.**

4.-Moziok.

Ez daude.

5.- Batzordeen informazioa.

- Gizarte Zerbitzuen Batzordea. M^a Marrek ematen du informazioa.

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko bilera izan da eta bertan azaldu dute kontratazio berri bat egingo dela eskola sustatzaile moduan, Ngko dirulaguntza batekin %100ean finantziatua. Pertsona honen kontratzioarekin, hezkuntzatik kanpoko beste gai batzuk landuko dira ikasleekin, tratu onak eta abar... Bi eskoletan ibiliko da bai Larrainzarko ikastetxean bai Oihanzabal eskolan.

Gainera dekretu berri bat argitaratu dela adierazi zen eta honekin gizarte zerbitzuak finantziatzeko modua aldatuko da. Honek suposatuko du beste gauza batzuen artean kultura dinamizatzailea ez dela gizarte zerbitzuetatik kudeatuko, egonkortasuna emanen ziola hezitzaile sozialaren lanpostuari eta abar...

Gizarte politika batzordean pasarelen eguna antolatzeke bilera egin zuten. Eguna abuztuaren 29an ospatu zen eta batukada tailerrera jende asko hurbildu zen.

Bukatzeko Yesa herrian azken urtetan ladu den proiektua ezagutzera joan ziren udaleko eta adinduen taldeko ordezkariak. Proiektu honen baitan adinduen ikuspegia kontutan hartzea edozein udal ekimenetan da. Helduentzako herri egokiak egitea da helburu.

-Gazte Batzordea. Olatz Doraik ematen du informazioa.

Batukada tailerra antolatuko da urria eta azaroan, bi larunbatetan burutuko da hilabete bakoitzean eta abenduaren hasieran emanaldia eta afaria egingen da.

-Hezkuntza Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.

Ttikienak bilera izan da zuzendariarekin, hezkuntza proiektua azaltzeko, funtzionamendua antolatu eta abar... 2019-2020 ikasturte berrirako.

- Garapen Batzordea. Ricardo Arangoaka ematen du informazioa.

Cederna Garalurrekin bilera egin da, 1. sektorea bultzatzeko langileren aurkezpena egiteko.

6.- Informazio orokorra.

- Aralar Musika Eskola 2019ko kuotaren %25eko ordainketa eskaera 4.192,55 euro.
- Kirol eta Gazte Institutotik onartu da abuztuaren 22ko datarekin 3. adinekoekin iharduera fisikoak egiteko dirulaguntzaren azken zatia (2018ko abendua 2019ko maiatza), 487,80 euroko dirulaguntza onartu dute.
- Berueteko abere ustiapen batean Jaucha empresak, ihardueraren izaera aldatzeko iharduera sailkaturako tramitazioa hasi du, alegazio epean 2 alegazio aurkeztu dira, bat partikular batean usain eta zaborren kudeaketaren inguruakoa eta kontzejukoa bestea zonaldeko ur depositoaren neurria eta iharduera berriaren eskakizunekin lotutakoa. Expediente osoa Ngra bidaliko da baieztatu txostena eskatuz.

7.-Erreagu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:00ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.